2.ª URTEA

# IBAIZABAL

61.ª GUEIA

GANDEETAN IRTETZEN DA | BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA | DOMEKETAN URTETEN DAU

1903-ko Epailla-ren 1.ª | **Euskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean. Guei Bakocha, Chakur chiki bat.** | 1903-ko Epailla-ren 1.ª

**IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-renean.**
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tivoli, letra B, 2.º derecha.

## IRAKURLAI OAR BI

1.ª Igaz, arguitara urten orduan IBAIZABAL-ek, jakin eraguin guenduen aurretik ordaindu edo pagatu bear zala bere euspena edo suskriziñoa, alanche bear dalako eguin bere kontuak bardiñean erabilli gura badira. Ori eskatzen deutsegu orain bere gure lagun guztiai. Aleguindu beitez euren euspen-saria edo suskriziñoa ainbat lasterren bialtzeko, edo urren (urbillen) dauken gure arduradunai emoteko; eta onei, arduradunai bere dirautsegu aurrerantzean illean illean garbitu daiezala kontuak gugaz. Onetara IBAIZABAL-en kontuguintzea polito ta bide onean joango da.

2.ª Aitortu bear dogu igaz IBAIZABAL-ek ezebala irabazi bera bizi izateko laiñ, ez guichiago bere; asko galdu eban, ta aurten beste ainbeste guertatzeko bidean goaz. Argui da bide ori eriotzakoa dala, ta ziur gagoz gure irakurlak atsakabe izango leukeela IBAIZABAL illgo balitz. Bada, euren eskuan dauke sendo ta bizi izateko bidean ipintea. ¿Zelan? Euspendu edo suskribiduteaz bakarrik. Gaur daukaguzan erostzaillak balira eusle edo suskritoreak, IBAIZABAL-ek igaz euki eban *déficit* edo utsa ezeretu edo beintzat asko arinduko litzake; ta orregaz, bere bizia ziurtuta edo asegurauta legoke.

Euskalerriko euskalzaleak, zeuen eskuetan dago euskeraz aguertzen dan albistari bakarraren bizia. ¿Illgo eteda?

## SANTO TOMÁS ARINOKOARI

¿Ez aldezute iñoiz ikusi
gau-guiro eder batean
izar taldeak arguí eguiten
bakoitzak bere sallean?

Batak argui ta besteak argui
zein baño zein ederrago,
beguiratzeaz ez guera aspertzen
gueroago ta naiago.

Baña badakar egunsentiak
bere ondoren eguzkia,
eta illundurik guelditzen da aien
arguitasuna guztia.

Ez dute galdu arguitasunik
len beziñ dirade arguiak:
ez da besterik, eranguin die
gai onetan eguzkiak.

Nolabait ere au guertatzen da
Jesukristoren Elizan,
guízon jakintsu ta arguiak ere
danak berdiñak ez izan.

Chit askok argui eguiten dute
birtute ta dotriñakin,
baña ala ere ¿nor komparatu
Akinoko Tomasekin?

¿Non da beste bat jakindurian
Santu au bezelakoa?
Erakusteko ¿non da beste bat
onen neurrietakoa?

Mundu guztiak eduki beza
orain ta beti jakiñik:
gauza ezkutuak erabakitzen
ez du Tomasek berdiñik.

Bere dotriña, danok dakigu,
miragarrizkoa dana,
Aita Santuak ta Jesukristok
daukate ontzat emana;

Ez da mazorik erejeentzat
au baño gogorragorik
guezur guztiak deseguintzeko
ez da egokiagorik.

Miragarria izanagatik
Tomasen jakinduria
dudarik gabe ez dago onetan
bere meritu guztia.

Zeiñ eta asko balio duen
Jakintsua izateak
Jaunarekiko askoz gueiago
balio du birtuteak.

Obraz aguertu nork berak itzez
erakutsitzen duena,
au izan oi da erakusteko
modurik onen onena.

Ause eguin zuen gure Santuak
bizi izandu zan artean
ez du damuko orain Zeruan
zorion kabugabean.

† JOSÉ MARÍA ELEICEGUI

## PERRECHIKUEN AZKERA

### Churingoa zelan landatu (1)

Perrechikuak daukee azitzat kapelachuen azpitik jausten jaken autsa, baiña gueienetan ezta auts ori erabillten barriro eurak azteko. Lurpean daukez sustar antzera ari zuri, mee, luze ta ugariak, zeintzuetatik artzen dabeen bizi izateko bear dabeen lurreko guna; bada, ari orreek daukazan lurra edo satza izaten da gaia barriro perrechikuak ekarteko. Lur aridun oni deitzen deutse prantzesak *blanc de champignon*, eta euskaldunak *perrechikuaren churingoa;* berau saltzen da mokilletan edo opilchuen taiuan.

Mokill edo apurretan (1) satz legortuaren antza dauko, ta ondo beguiratu ezkero oartzen *(advertidu)* jakoz ari mee zuriak amaraunen antzekoak. Opill moduan dagoanean erre bagako ladrilluen antza dauko, ta oni be ondo beguiratzen baiako arichuak ikusten jakoz. Esterissa edo tamañu bardiñean apurretan baiño astunagoa da opilletan, bada opillak eguiteko bustiña erabilli bear izaten da; baiña orrechegaitik pissu bardiñean merkeago izaten da opilletan dagoana.

Churingo au nun erosten dan ardurea artu bear da. Onetariko guichi saltzen dabeen bedar-saltzailla edo azi-saltzaillai (2) obe da ez erostea, bada askotan saldu barik echean eukiten dabe urteetan, da indarra galdurikoa izaten da. Asko saltzen dabeen merkatari andiai erostea da onena, ta eskatu bear jake freskua edo barria ta ondiño perrechikurik emon eztabenetarikoa. Emen esan daikeguz urrengo echeak arazo onetarako: *Vilmoren-Andrieux et C.ia 4, quai de la Megisserie—Paris*, zeiñek saltzen eban churingo kiloa 2 *franco* 20 eunen edo *centimo*-tan oraiñ urte guichi dala; *Nonell é hijos, carrer de Caputxas, 8, Barcelona*; nun dagozan salguei 2 ta 4 pesetako kuchak edo *caja*-chuak.

Beste gauza guztietan oi dana, ezta beti merkeena izaten onena. Churingoari igarten jako ona dala, bere zatichuak ariz guztiz beteta egotean. Landatu ordurarte gorde bear da leku aizetsu, legor, eta fresko edo otzaroan.

Satz oeak atondu ta berealasse ezta ondo landatutea, satzak daukan beroak kalte eguin leikiolako churingoari; icharon beroa zerbait jatzi artean, eskuak jasan edo sufriduteko moduan egon arte. Guztiz otzitutea be ezta ona, bada churingo onen arichuak bizkortzeko bear da berotan 25 maillatik 35-ra (1).

Landatu eguiteko, churingo opillak arrautza baten inguruko zatiak eguin bear dira; satz oean eguiten dira zuloak alkarren bitartea arrabete ingurukoa dala; zulo orreek errezkan errezkan eguin, eta modu onetan: errezka bakochekoak eztaitezala egon aurreragokoen parian, eta bai oneek isten dabeen utsunearen erdi-inguruen parian. Zulo bakochak guichi gora-bera eukiko dau, zabaleran 2 ontza, luzeran 4, ta zakoneran 1.

Euretan sartu esan doguzan churingo zatiak; estaldu satzaz, au zerbait sakatuaz; guztiz estaldu barik, ichi lekio apur-apurchu bat aguirian churingoari. Zati chikiagoak gueratu badira, batu leikez alkarregaz arrautza baten esterissa edo tamañua eguiteko moduan, ta kontu euki chatal guztiak satzari ikututeko moduan ipinteko.

Metro laurka (2) baten bear izaten da kilo-erdi edo libra bat churingo.

(1) Ia denporea da emen esan zala zelan satza atondu edo preparan bear dan, echean perrechikuak azteko. Arazo onetarako jakingaiak emoten deuskuzan adiskidea ordutik onaiñoko bitartean, bere echekoen artean izan daben galtzai andi batek euki dau issillik. Ama bat galtzeak gogora ekarri oi daben zauzkadeak beste gauza guztiak baztertu ta estalduten dauz.

(1) Esan gura da azkatua edo austua. Lur mokill batek, dzartada bat emon da austen danean daukan taiua.

(2) Bedar-saltzailleari esaten deutse *herbolario* erdaldunak, eta *arbolarioa* Euskalerriko tokien baten.

## EUSKALDUN ERDALZALEA

### Ijito baten suertia

I

Arichuleguiko mendi gañian barruan dijoaz bi ijito izketan:

—Aizazu, Pachiku.

—¿Zer nai dezu, Mikoless.

—Or dabiltzan bi zaldi kosskor oiek elitzaizkigu ba gaizki etorriko.

—Ez: illea pusskacho bat moztu, jaten ondocho eman, apurcho bat biribildu, eta Santa Lutzietan Millaerreal Zumarragako perietarako moldatu litezke.

—Bai, ezagutuko ezpaguinduzkete gutaikoak guerala.

—Eztago orrelako beldurrik; gueron buruak erdaldun eguiñ eta..... *adelante.*

—Ordia, erderaz oso moch nago ni beñepeiñ.

—Izango dira an euskeraz moch daudenak ere, baña eztira issillik egongo euskaldun erderaz eztakitenekin ere, eta ala, batzuek euskaldun erdalzale, eta besteak erdaldun-euskalzale, guziok eguingo degu mordollo bat, eta entendituko guera.

(1) Eun *grado* edo mailla daukazan bero-neurkai edo *termometro*-an.

(2) Au da laurka bat, zabaleran da luzeran metro bat daukana.

—Korriente; zuria da arrazoia, Mikoless.

II

Edo ta kontuek etzituzten ondo atera, edo ta kukuak oker jo zien; beñepeiñ Mikoless, amabost egun barru, kartzelan zegoan.

—Baña Mikoless; ¿oraiñ ere kartzelan?

—Bai, *kuñao* maitia; bai.

—¿Baña zergatik?

—Mesede bat eguiteagatik.

—Nik sinistu ori.

—*Pues siñor*, Arichulegui gañian arkitu nuan *malamuerteko* zaldi bat, errukitu nintzan, amar egunian jaten eman diot, loditu det, oraiñ aguertu da aren jabetzakoa, eta kendu dit.

—Emango zizun ordia *propiña*.

—Bai lau makillakada eta gañera Juezak emango didana.

—Bai, bai. Ondo eguiñaren pagua ate ostian palua.

—¡Ai zer eguia esan zuan ori esan zuanak!

—Ba iduki ezazu gogoan, eta baita beste au ere; *kaballo de mal muerte, Dueño makilla puerte, A Mikoless mal suerte*.

—Bai *kuñao* maitia bai; eta etorri zaite, bigar Juezaren aurrean, nik zer esaten dedan, aditzera.

—Ondo da, eta agur!

—Agur, bigar arte.

III

—¿Nola dezu izena.

—Urrepiño (1).

—Izen ederra.

—Bai Jauna; beraren jabe banintz ez nikie idukiko Juezai, gaur daukakiedan aimbat beldur.

—¿Ez ote?

—Ez Jauna; zazpi arrua banaiz; eta guzia urre piña banintz, begui arguia... *bamos... entendido*.

—¿Izen asko alduzu?

—Bai Jauna, alkandorak baño gueiago.

—¿Zenbat alkandora dituzu ba?

—Bat bakarra.

—Guchi da. Dozenerdicho bat bear ditu guizonak.

—¿Eta aldian zenbat jantzi?

—Aldian... bat.

—Orretarako bat naikua da.

—¿Eta aldatu bear danian?

—Bat jantzi, urratu arte ibilli, eta guero berri bat erosi, berriz ere urratu arte, eta onelasse... *akabo*...

—Zuk lenago Nikolas zenduan izena.

—Bai Jauna: eta lenago Michel eta lenago Pilipe.

—¿Zergatik mudatzen dituzu ba?

—Kartzelatik ateratzen gueran bakoitzian mudatzen degu izena.

—¿Baña zergatik?

—Kondutagatik.

—¿Nola da ori?

—Ara Jauna; neretzat izango litzake *desonra*, iñork esatea; «Urrepiño kartzelan egon da.» Baña kartzelatik ateratzean eta Eugen izen a rtu, ez naiz ni orduan Urrepiño eta Eugen-egatik eziñ iñork esango du eguiaz kartzelan egon danik.

—¿Ez ote da Eugen-ik kartzelan egon?

—Beste Eugenen bat, baliteke, baña ni ez.

—Utzi deguiogun oni. ¿Nola dezu izengoiti edo apellidua?

—Echeberria.

—¡Ola, ola! ¿Echeberriatarra zera?

—Bai Jauna, bai. Echeberririk eztegu baña...

—¿Zarrik?

—Aiñ guchi.

—Beraz izenak bakarrik.

—Bai Jauna; guk izenak, eta berok guizenak.

—Guazen oraiñ beste gauza batera.

—Baita bitara ere nai badu.

—*Konke*, ¿eguia da?

—Eztakit Jauna *konke* ren berririk.

—¿Eguia da, zaldi bat ostu dezuna?

—Ez Jauna: nik eguin dedana da *obra miserikordiazko* bat.

—¿Zein da?

—Goseaz dagoanari jaten ematea; ala, mantendu det amar egunian iñoren zaldia.

—Bada nik oraiñ zurekiñ eguingo det beste *obra miserikordiazko* bat.

—¿Zein da?

—Peregrinoari ostatu ematea.

—Ez naiz ni, ordea pelegriñoa.

—¿Zergatik ez?

—Eztaukadalako nik chirla andirik eta ez chikirik lepuan.

—Baña bai barruan koncha andiak eta asko...

IV

Urrepiñok kartzelan etzirudian ar andirik zeukanik, bada, jan ta lo ondo eguiten zuan; kantatu berriz, ara nola:

Gueron echerik ezpadegure
Ezin guindezke estutu,
Jauregui andi ta ederretan
Ematen zaigu ostatu,
Jan ta edana nai bezelasse
Arditikan ez kastatu.
Bizi modu au Erreguerire
Nai ta ez, bear gustatu.

Lau illabeten buruan atera zan kartzelatik.

¿Zer eguiñ otezuan bere lagun Pachikuk beste zaldiarekiñ? Aditu zuan ostu zuan bigaramonian jabeak kendu ziola. Ara nun, ustez ustegabe alkar topatzen duten biak.

—Ola Pachiku.

—Kaissio Mikoless.

—¿Zaldia ondocho saldu zenduan?

—Ala ala ba *kostaprezioa* eraguiñ nion bakarrik.

—¿Gueiago ez?

—Ez; peria kaskarchoa izan zan ta.

—Anbat gaiztoago.

—¿Zuk zerea (edo jabearena..... *bamos*...) ¿ondo saldu zenduan?

—Bai, eraguiñ nion *kosta prezioa* eta gañera lau illabeteko jan-edana ta echia libre.

—¡¡¡Milla arraia!!!...

—¡¡¡Orisse da guizonaren suertia!!!

P. M.

1903 Otsaillaren 22 an.

(1) Rufino.

## NERE ANAI MAITE BATI

Urruti zaude
anai maitea,
nigandik zaude
urruti,
Jaunak orrela
aguindu badu
zergatikan dan
badaki.

—

Zenbait alditan
gogoratzen zait
elkarrekingo
egonak;
¡O zer alaiak
igaro ziran
garai artako
denborak!

—

Euskal-erriko
mendi ederretan
ibilli gozo
aiekin;
¿gomuta zera
anai maitea?
¿gomuta zera
nerekiñ?

—

¡O zenbait bider
arkitzen guiñan
arbolapean
jarririk,
chorichuaren
soñu ederrak
aditzen pozez
beterik!

—

¿Erbeste orretan
billatu dezu
baserri polit
churirik?
¿Zelai aundian
jolas eguiten
ikusten dezu
ardirik?

—

¿Mendi orretan
oteda arkitzen
arbola zabal
ederrik?
¿Aditzen dezu
euskerearen
itz gozo eta
garbirik?

—

Guztiz urruti
zu egon arren
nik maite zaitut
biotzekiñ,
ta orregaitik
nere gogoa
betiko dago
zurekiñ.

—

Atoz nigana
ta egongo guera
arbolapean
jarririk,
chorichuaren
soñu politak
aditzen pozez
beterik.

GREGORIO MUJIKA.

## GURE ESKUTITZAK

### Errenteritik

*Ibaizabal* asko irakurtzen da emen emakumen artean eta orregatik esan nai ditut gaur itz batzuek jende askoren enkargua betetzeko.

Gukaren bada emakumeakiñ, baiña ez uste izan neskazarrak bakarrik dirala partean (eztet abekiñ aserratu nai), baizikan zar, gazte eta adiñerdiko guziak.

Jaiero ikusiko du nai duenak elizan, apaiz bat Gure Jauna ematen asten dazean, urbiltzen dirala mai santura emakume asko, zeiñak betetzen duten bereala aldare aurrean belaunikatzeko dagon arri-mailla, uzten dutela bakar bakarrik guizasemebi edo gueienaz iruren tokia.

Baiña ezta ori dena. Artutzen dute Jauna, jaikitzen dira eta..... ¡plast! gueldituko dira bertan, utzi gabe tokirik aldarera alderatzeko, ez atzetik datozenari, eta ezta ere bankuetan dauden guizonari. Urruti gabe, joan dan igandean (1) nere beguiakiñ ikusi nuen. Ari zan erretore jauna komunioa ematen, baiña ¿nola uste dezute?..... andre bat emen aldare iskiñan eta beste bat edo bi aldarean beste iskiñan, eta Bikario jauna, dituen urte guziakin, ara joan eta onera etorri, iru edo lau laguni komunioa emanez jira bakoitzean.

Noizpait esan zuen jendea atzeratu zedilla atzean zeudenari bide eguiteko... baiña ¡bai zera!... eguin zuten batzuek muguitu papera, alcha ziran eta.., ¡planto! lengo tokian bertan. ¿Esan nai dute zergatik Jauna artuta eztiran beren tokietara joaten, an bertan guelditu gabe traba, oso traba aundia eguiten dutela aldare baztarrian?

Jakuin bear lukate Jaungoikoak edozeiñ lekutatik eguiaz eguiten zaizkan otoitzak entzuten dituela, eta beragatik, aurrean eguiten diran errezuak eztutela atzerassiotik eguiten diranak baiño gueiago balio.

Uste det emendik aurrera oraiñ artean guertatu dana eztala guertatuko, eta emakumeak ezaguturik gaizki eguiten dutela, eztala faltako tokirik ez Jauna artzeko eta ez aldare aurrean ibiltzeko; bestela eguin bearko dute guizasemeak, guk denak zakar bat beguietan sartzen zaigunean eguiten deguna, au da, saiatu lenbaileen ateratzea eta ezin degunean, norbaiti atera arazi.

Ori bera eguin bearko dute guizonak; baldin emakumeak ezpadira atzeratzen, beso ondotik artu eta atzera arazi traba eguiten duten kitik.

Badakit batek baiño gueiagok esango dutela gogor samar mintzatzen naizela, emakumeakin guizasemeak gozossiago bear duela; baiña askotan komeni izaten da itz gossuakin ezin dana itz zakarrakiñ logratzea.

Eta oraiñ nere naia da ez nezkazarrik eta ezta ez gazterik eztedilla aserratu (¡penacho artuko nuke!) eskutitz onek esaten duenagatik; baiña eguin dezatela denak bertan eskatzen zaiotena..... ¡bestela!.

ENRIQUE ELIZECHEA

### Zarauztik

Galdera banaka batzuek nai dizkat eguin albistari chiki onen bitartez bere irakurleai, baldin ongui baderizkiote erantzutea.

Lenengo: eguia aldan Pasaia San Juanen arrantzalean meza ondorengo avemariak aurtengo kosterako denboran erdaraz esan dirala, eta arrantzaleak enskarak erantzun dutela.

Bigarren: ondo ote derizkioten euskara goratzen jardun, eta izanik euskalduna beti erdaraz mintzatzea, onek merezi duen euskaldunen izena.

Irugarren: ia zergatik gure diputadu eta beste aguinte duten gueienak erriaren aurrean, berak izanik euskaldunak, erdaraz mintzatzen diran.

Langarren: Tolosako erriaren aurrean eguin diran itzaldiak Gernikako arbolaren umea aldatzeko denboran euskaraz izan diran.

Boskarren: ia eguia al dan Gernikako Junta-echean dagon atezaia erdalduna dala, eta ala bada zergatik.

Eta azkeneko Zarauzko aiuntamentu errespetagarriari: ia ondo legoken orain eguitera dijoan azoka

(1) Lengo astean artu guenuen au; baiña berandu orduko gueian jartzeko.

edo merkatu toki orri euskarazko izen autu bat jartzea; gaiñera, nola bai dauden kalean izenak leku askotan urratuak, berriak jartzeko denboran euskaraz eta ondoren erdaraz ez legoken egoki jartzea. Emen guera 3.000 anima guchi gora-bera, eta erdaldunak gure artean eztira izango 13, eta euskara emen bezela arraz toki guchitan mintzatzen da; ara nola.

Guchienaz urteko egun gueienetan esango dira 20 meza eta ondorengo avemariak gueienaz erdaraz esango dituzte bik, eta obek euskaraz eztakitelako; erriko pregoi danak euskaraz eguiten dira; aiuntamentu ta bere mendeko jarduerako (1) guztiak euskaldunak daude, eliz pestetan asko kantatzen da euskaraz, eta ez litzake gaizki artuko kalean izenak euskaraz jartzea. Orduan bai esango litzekela: «Zarauz bai dala uri edo erri euskaldun benetakoa».

JENARO ELIZONDO

## NEURE JAIOTERRIARI

Orozko erri zabal
pare bagakoa,
mendi ederren jaube
da zeure lepoa;
neu bere orche izan naz
mundura jaioa;
ta orche igaro neban
nik gazte-aroa.

Urregoitiko Sala
ta Ibarra estua,
berachuago dago
San Martin dontsua,
eta guero San Juan
Zubiaurrekua;
au dozue guztien
jaube ta burua.

¡Ai neure jaioterri
luze ta zabala!
Euskalduna deritzot
zeu etzareala;
ezta aguiri seme bat
euskaldun leiala;
motzak esan leiteke
guztiak dirala.

¿Nun dira Sazedo-tar
guztiz baketsuak
Sagarminaga eta
Epaltza-nekuak?
¿Nun dira Orozkoko
euskaldun zintsuak
guztizko guizon garbi
leial ta mantsuak?

IBAIZABAL chikia
dago emen zabalik
euskaldunen irrintza
poz entzun gurarik;
Orozko aldetik iñoz
ezta zaratarik;
deritzot or eztala
bape euskerarik.

Ia erritar maitiak
bizkortu gaitian
ipinteko gure Ama
osasun onian;
eguin daigun aleguiñ
al dogun guztian
danok maitatuteko
beti gueure artian.

Ezkaitezan ez egon
loak gogortuta
arerio andia
ganean dogu ta
alkar arturik danok
eta bizkortuta
gueure Ama ichi daigun
ondo osatuta.

Agur Orozko eta
zazpi elizatiak;
agur Anuntzibai ta
Gorbea mendiak;
ondo aztu zaitueze
euskaldun jentiak;
agur erri laztana
parkatu guztiak.

BIARGUIN BAT.

Bermeon.

(1) Empleatuak

## ZARRAPARREA

Atzeragoko gueiren batzuk eskatu deuskuez batetik eta bestetik. Espeitez egon artega, oraîn artean artu ezaz; bialduko dira eskaturikoak.

---

Epailla edo Martia-ren 3.ⁿ ospatuko da mundu guztian, Leon XIII-garrena Aita-Santutzara jasoa izan zan egunaren oguetaboskarren urteurrena. Uri andietan, elizetan izango direan jaialdiakaz ganera, eguingo dira arguierak edo iluminaziñoak eche ta kaleetan.

Ain zaarra izanik, Aita-Santuak daukan osasuna ta buru-arguia miragarria da benetan.

¡Jangoikoak orrelanche gorde daigula urte askotan!.

---

Bilbotik Santander-erako burdiubide Baltzuak edo *compañiak* eidauko asmoa (ta asi eida atarako lenengo lanetan), beste burdinbide bat eguiteko Bilbotik Durangora, gueroago emendik Maltzaga-raiño luzatu, ta Zumarragakoaz bat eguiteko.

Bilbotik-Durangorakoaz aitu nai izan eieban, biak alkar bat eguiteko ustean; baiña ezin izan eizirean aitu, ta orduan erabagui eban Santanderekoak aitatu dogun bidea eguitea.

Durangokoak bere luzatuko eidau Elorriorako gaur eguiten dabillena Gatzagaraiño, andik Bitoriara dagoanaz batzeko; ta ganera bide onetatik aterako eidau bide-zear (1) bat Estellara, ta Estellatik Iruña edo Panplonora.

Orrenbeste bidegaz, echeari gogorren josita dagoan guizona be lokatuko dabe. ¿Nor egon bakean echean ainbeste ibilbide esku-eskuan euki ezkero?

---

Aurten Bilbon eztogu ikusi ezta jakin, Autsen egunean kokomarro zaratarik eta sardiña prozeziñorik eta orrelango kirtenkeririk izan danik.

Poztuten gara.

(1) Ramal.



—Eta Don José aitatu degun ezkero... gaur ¿nola ezoteda etorri? esan zuen Praiskak.

—Atzo joan bazan Donostiara... bere illoba Indianoari bidera ateratzera—esan zion Juanek.

—¿Orla badator illoba? ¡Ai zenbat pozten naizen! ¿Ekarriko otedigu zure anaian berririk, Juane?

—Jaungoikoak nai izan dedilla.

—Arritzeko gauza da guero, ainbeste denboran ez jakitea, ez ill dan ez bizi dan.

—Bildur naiz illko zala, bestela onezkero letra punten bat eguingo zuan.

—Neronek ere ala uste det, Juane.

—Bost ajola digu ori ala izanda ere—esan zuen Pachikok.

—¡Ave-María Purísima!—dio Praiskak—¡Ai zer biotz gogorraren jabe aizen seme!

—¿Zer ardura digu guri ura deabruak eraman dezala sekula ardit bat eman ezpadigu?

—Nik nai dedana eta danok deseo bear deguna da, bizi dedilla—esan zaen Juanek—naiz Ipiñ-arrita bete urren jabe izan eta ezteigula errechin batentzat ere eman.

—Baiña ¿Amerikatik dator Don Jozen illoba?—galdeta zuen Mikaelak.

—Etzekiñat nik ori—erantzun zion amak—baiña nola ta nai ere urrutitik beiñepeiñean, eta esaten dutenez oso aberats.

—¡¡Isso!!...—esan zuan Iñaziok, lepoa luzatuta—¿Ezotedira berak an Deskargan barrena datozenak?



ssa arbola batetik, zeiñen ondoan zegoan Aitona buru zuri bat.

Bien artean artu zuten alde banatatikan keissaz beterik zeukaten ocharrena eta abiatu ziran Ama eta Iñazio zeuden aldera.

Elkartu ziranean eseri ziran atsedeten lurrean.

Aitonak atera zuan praketako boltzikotik bere tossa, atera zuan andik pipa kerten motz bat, eta atzazkalean astinduaz, nola ortzik ez zuan jarri zuan zintzilika ezpañean.

Beste ainbeste eguin zuan seme zarrenak.

—Pachiko, eman eguiak pipada bat, emen etziok eta—esan zion Aitonak biatzakin atzamartuaz, baiña alperrik, tossaren ondoa.

—Aita, neroni ere aitu zait—erantzun zion semeak bere pipa bete zuanean.

—Guezurtia—esan zion Iñaziok isioturik.—¿Atso bertan ez nikan ekarri neronek laurden bat Bergaratik?

—¡I beti izango aiz berritsu aundi bat!

—¡Eta i zitala paregabekoa!

—Ondo eguiten diat. Erre nai duenak erosi dezala belarra.

—¿Ezaiz lotsatzen esatiakin bakarrik?

—Utziok, utziok Iñazio—esan zuan Aitak arnasa luze bat eguiñaz eta pipa sartuaz bere tossan—utziok. Bazekiagu zer ichon dezakegun guztiak ire anaiagandik.

—Juane—esan zuan Amak—Orisse da eche onetako Judas; orrechek kendu bear digu danori bizia; orrechek...

# IZKIRIMIRIAK

Konkor edo lepocha bat eta begui-bakar batek (biak guipuzkoarrak) alkar topa eben goizalde baten, eta beguibakarrak esan eieutsan lepocheari:

—Aizak, goizetik gabiltza kargaturik.

—Ain goiza da non leio guziak eztirade irikirik, erantzun eban besteak.

——

—Anai, ekatzak lau-errealeko bat lo ezpaago.

—Eztiat aitzen, lo niok.

——

Mutill chiki bat echetik iguesi eguinda egoan. Echekoak billa ta billa aurkitu eben alango batean ortuan oiñutsik eta lurrean sartuta, zutun zutunik eta ben-ben *(serio-serio)*.

—¿Zer eguiten ago, chocho?

—Echean egonda ezin asi naz bai, ta ortura etorri naz, ia emenche bedarrak leguez neu bere asten nazan.

——

Telegrafo-ko ariak jasateko egoten direan palu edo agandi baten ondoan guizon bat chis-eguiten egoan; bururatu jakon telegrafua, ta ziñoan bere artean:

—¡Deabrukeriak direala esan leike telegrafo-ko kontu oneek! ¿Nok esango leuke, oraingo Madrillan, Bartzelonan, da beste leku askotan jakitun dagozala Chomin chis-eguiten dagoala emen?

——

Erri baten alkateak aguindu eban chakur guztiai ipiñi eioel *mosala* euren jabeak, bost pesetako multa pean.

Chakurdun batek aguindu ori bete eban, bere chakurrari *mosala* ipurdian ipiñiaz. Aguazillak multea ezarri eutsan, baiña besteak ezeban emon gura, ta beraz, joan zirean alkatearen aurrera. Onek itandu eutsan ia zer erabillen, da erantzun eban:

—Zure aguinduak eztiño *mosal* ori nun ipiñi bear dan; batzuk musturrean ipinten deutse chakurrai, nik ipurdian ipiñi nai izan deutsat, eta kitu.

——

Upela langosse guizon lodi bat, eta orratza lango guizon argal bat aurkitu zirean, da esan eutsan onek barreka.

—Mutill, i charria baintzake ondo zoricharrekoa izango intzake.

—¿Zer ba?

—¿Zer ba? Laster engoke odoleste ta lukainka eguinda.

—I barriz, charria izatera etorriko baindeke, ni baiño askozaz zoricharragokoa intzake.

—¿Zelan dok ori?

—Bada, nik neure aldi charrak laster amaituta izango neukez, eta i guizajo ori eure bizi guztian erabilliko endukee feriarik-feria, iñok erosi nai ezik, makilladaka eure azur zorrotzak ausi bearrez.

——

—¿Zer gura zeunke izan? esan eutsan aita batek bere seme bati.

—Nik, *guardia zibilla*.

—¿Oiñezkoa ala zaldizkoa?

—Zaldizkoa, lapurrakandik ariñago igues eguiteko.

——

Aita batek bere semeai:

—Aste guztian onak izaten bazaree, domekan eroango zaituet danok bizarra zelan kenduten deusten ikustera.

——

Erbestean luzaro egoniko guizon bat eldu zan bere errira ta jakitun buru eguin nairik esan eutsen beiñ bere entzulai:

—Zuek eztakizue ezer; inpernua, zerua... ez eguizue jaramonik eguin orretariko eskilkeriari; gure arimea bere gorputzetik aldenduten danean, abere baten gorputza biztutera joaten da; izan leiteke ni ilten nazanean nire arimea asto baten gorputz bat biztutera joatea.

—Orretarako, erantzun eutsen batek, eztozu ill learrik.

——

Amak emon eutsan Kosechori sagar bat, eta esan eutsan.

—Erdieztu eguizu sagar ori zeure arrebachuaz kristau onak eguiten daben leguez.

—¿Zelan eguiten dabe ba kristau onak ori?

—Zatirik andiena besteari emonagaz.

Orduan Kosechok sagarra bere arrebachuari emonda esan eutsan:

—Eutsi, ta zatitu eguizu neugaz sagar au kristau onak leguez.

——

Gabonetan.

—Eskupekoak erdi bana eguin bear joaguz guero...

—Baietz guizona.

—Da, ollaskoak eroan doazan ochean ¿zer emon dauek?

—Milla esker.

—Ba... bosteun bakoitzari jatorkuzak.

——

Gueltoki batera eldu zan bat astoa eskutik eroiala. Urreratu zan leiochikira edo *takillara* ta esan eban:

—Nire astoantzako billete bat.

—¿Da zeuretzat?

—Nik eztot bear, asto ganean joango naz.


## GURE SUSKRIZIÑOK-BATZAILLA

### BIZKAIAN

*Bermeo*, José Antonio Zabala; *Lekeitio* Julián Zarreta; *Lemona*, Prudencio Arrieta; *Plencia*, Bernardino Sierra; *Munguia*, Eustasio Bilbao; *Markina*, Felipe Eizaguirre; *Durango*, Roberto Soloaga; *Ondarroan*, Aquilino Echevarría.

### GUIPUZKOAN

*Donostia*, Zacarias Leizaolaren alarguna, 17, Loyola, liburuteguia; *Azpeitia*, Salvador Bengoechea; *Bergara*, Francisco Oyanguren; *Tolosa*, Baleriano Mokoroa; *Irún*, Guillermo Iguaran; *Deva*, Esteban Egaña; *Zumaya*, Pedro Ignacio Aizpurua; *Zarauz*, Jenaro Elizondo; *Oñate*, Fermin Bengoa; *Mongragon*, Antonio Kerejeta; *Eibar*, Julián Odriozola; *Renteria*, Gabriel Echebeste; *Pasaian* Juan Valverde; *Arechabaletan*, Francisco Galdós.

LA EDITORIAL VIZCAINA deriehon moldaguintzan

Gran Via, 26 eta Ledesma, 15.




—Issildu zaite Praiska—erantzun zion Juanek—pipa artzaille zalea banaiz ere, echeko bakian zaliago naiz.

—Aita, bakerik ezpadezu ere pipa bete belar izango dezu—dio Iñaziok—ni bizi naizen artean; eta esanaz batera brinko bian sartu zan echean.

Jesusgarren batean biurtu zan atzera arturik eskuan orri puska bat sokan guisa biurtua.

—Tori Aita—esan zion—naiz neronek ez erre, esagutzen det zenbat aienatzen zeran orririk ez dezunean pipa betetzeko, eta argatik, atzo nere anaiaren aguinduaz joan nitzanean belarra ekartzera, erosi nuen laurdencho bat zuri ezaldiak betetzeko.

—Bai—esan zuan Pachikok—nere laurdenetik artuko uan ori.

—Beguiraik Pachi, ezeidak odolik berotu. ¿Uste duk danak guerala ire antzekoak?

—Bai—esan zuan Praiskak Pachiri beguiratuaz—Aiñ zitalak dituk ire amesak nola diran ire eguiñak.

—Ba... ba... utzi utzizaiozue gauza orri — esan zuan Juane guizajoak masallak estuturik tira eguiñaz pipari.

Zorioneko pakea iritzi zan Eche-alaira. Illun arratza zan eta egunez bero izugarria eguin bazuan ere, chit egon-guiro ona zegoan.

—Aurki apaldu eta lotara joan bear degu—esan zuan Juanek—Bigar goizean goiz, eguzkiak berotzen asi baiño lenago, joan bearko dezute Bergarara keissekiñ, eta ala oraiñ goazen echera. Mikaelak onezkero guertatuko zuan aparia.



—Beguira Juane, ¿ez litzake obe bertan apaltzea?—esan zion emazteak.

—Ongui pensatua da...—erantzun zuten danak—eche barruan labean baiño beroago egongo da oraiñ.

—¡Mikaela!... deadar eguin zuan Praiskak eche aldera beguiratuaz.

—¿Zer nai du Ama?—erantzun zion neskacha batek sukaldeko leiotikan.

—Aparia guertu danean ekarrizan onerasse.

—Or naiz bereala Ama...

Eta esan bezela, or non datorren gure Mikaela galbai bat zapi zuri batekiñ estalia buruan arturik, eta gaztaiña koloreko pichar aundi bat sagardoz betela eskuan duela.

Itzuli zuen auspez galbaia; apaindu zuan zapi zuriarekin, eta jarri zuan gaiñean ontzi zabal bat bete sardiña, lina-lorea baiñon urdiñagoak, eta ingurutua urre zaarra baiño oriagoko arto atalakiñ,

*.....Aitaren Semearen, eta Spiritu Santuaren.....* Errezatu zutenean paternosterra, bedeinkatu zuan mai ura Juanek..... eta betor sardiña, kolpe artoari, eta laztan picharrari asi ziran jaten pake onean.

—Keissak badoaz arintzen—esan zuan Juanek—eta sentitzen det Don José-gatikan.

—Don José..... —dio Pachi—gueiago sentituko dute choriak.

—Aurten ezta onezkero gueiago etorriko, meza esan baiño len, goizian goiz, zozoak eta eskillasoak illtzera gure sukaldeko leiotik; ¡Deabruaren piztiak! eztira izutzen chorimaloa jarriagatikan.